

## ERABAKIA, HAUTAKETA PROZESU HONETAKO EPAIMAHAIARENA: ERAIKUNTZA, OBRA ZIBIL ETA MANTENTZE LANETAKO, ARKITEKTURA ETA OBRAK ESPEZIALITATEAN, MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIAK, II. TALDEA (ERREKTOREAREN 2018ko AZAROAREN 2ko ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK SARTZEKOA).

Eraikuntza, obra zibil eta mantentze lanetako maila ertaineko teknikari kategorian, (Arkitektura eta obrak espezialitatea) II. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren 2021eko uztailaren 13an, interesdunei hamar eguneko epea eman zitzaien erreklamazioak jartzeko, 8.6 oinarri orokorrak dioen moduan.

Ondorioz, hautaketa-prozesu honetako epaimahaiak hautagaiek jarritako erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, eta, bilera eginda, honako hau erabaki du, bat etorrita zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta deialdiko oinarri espezifikoek zazpigarren puntuan adierazitakoarekin:

**LEHENENGOA.-** UPV/EHUn lan kontratudun langile finkoak sartzeko 2016 eta 2017ko lan eskaintza publikoetako beste hautaketa prozesu batzuetan erreklamazioak jarri dira, berdinketa ebazteko lanpostuan igarotako egunen irizpidearen kontra; eta ikusita akats bat egin zela egunak kalkulatzerakoan, zuzendu egin da.

**BIGARRENA.-** Eranskin batean argitaratzea jasotako erreklamazioak, horien azterketa eta epaimahai kalifikatzaile honek erreklamazio bakoitzean hartutako erabakia.

**HIRUGARRENA.-** Argitara ematea Eraikuntza, obra zibil eta mantentze lanetako maila ertaineko teknikari kategorian, (Arkitektura eta obrak espezialitatea) II. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda, erabaki honen eranskinean jasota dagoen moduan.

**LAUGARRENA.-** Iragarkia argitaratzea UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (<u>https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite\_g/euskera/generico\_login.jsp</u>), non ikusi ahal izango den hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda.

**BOSGARRENA.-** Kontuan hartuta 7.4 oinarri orokorrak dioela epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango direla Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), administrazio bideari amaiera ematen ez dion erabaki honen kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Errekurtso hori aurkez daiteke UPV/EHUko erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren lekuetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4 art.), haren azken xedapenetako zazpigarrenean egiten den salbuespenarekin, erregistro elektronikoari buruzko xedapenak aplikatzen hasteko bi urteko epearen inguruan.



Libe de Aguirre de Arriaga Epaimahaiko idazkaria